

Aerosolak, hodei-sortzaile apartak

Kutsatutako aireak aerosol asko izaten ditu, eta hodei asko sorrarazten ditu, aerosolek hodeien nukleazioa eragiten dutelako. Baina ikerketa batek frogatu du aire garbian ere hodei asko sortzen direla, aerosol-kontzentrazioa oso gutxi handituta, gainera. Emaizta horiek *Science* aldizkarian argitaratu dituzte.

Gehienetan, aerosolen eta hodeien arteko lotura oso aire kutsatuetan ikertu da, baina Israelgo Weizmann Institutuko meteorologo batzuek atmosfera garbiko gunetan aztertu dute. Datuak jaso dituzte, eta eredu matematiko bat osatu

dute hodeien sorrerari eta eboluzioari jarraitzeko. Ikerketaren emaitzak erakusten du aerosolen kontzentrazioa eta hodeien sortze-abiadura ez direla linealki lotutako parametroak. Oso gutxi handitu behar du aerosolen kontzentrazioak atmosfera garbian hodeiak azkar ugartzeko.

Horregatik, giza jarduerari dagokionez, Weizman Institutuko zientzialariek proposatu dute industrializazioaren hasierako garaietan (XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran) oso handia izan zela aerosolen eragina hodeietan. Jarduera naturalari dagokionez,



ARG.: © ILAN KOREN

ikertzaileek onartzen dute hasierako ikerketa bat besterik ez dutela egin, ez baitituzte kontuan hartu aerosol-kantitateak naturalki dituen gorabeherak. Sumendiak, haize-lasterren dinamika eta beste faktore meteorologiko batzuk direla eta, atmosfera garbian aerosolak ez

dira orekan egoten, eta, alde horretatik, asko findu beharko dute oraindik hodeien sorreraren eredu matematikoa.

Nolanahi ere, ikerketak informazio berria eta berritzailea ekarri du: aerosolek ez dutela kutsatutako airean bakarrik eragiten. ●

Hondakin plastikoak, Lurreko ozeano guztietan

Ozeanoetan hondakin plastikoen bost eremu handi daude, eta eremu horiek bat egiten dute azaleko uren zirkulazio-aldaketekin. Hori da Malaspina espedizioak (CSIC) argitara eman duen azken ikerketaren ondorio nagusia. Hain zuzen, Cadizeko Unibertsitateak gidatuta, artikulu bat argitaratu dute *PNAS* aldizkarian, eta han agerian utzi dute Ozeano Barearen iparraldeko biltegiaren antzekoak daudela baita Ozeano Barearen hegoaldean, Ipar Atlantikoaren


erdialdean, Hego Atlantikoan eta Indiako Ozeanoan.

Horrez gain, ikertzaileek ohartarazi dute litekeena dela azaleko uretako biltegi horiek ez izatea hondakin plastikoen azken helmuga. Izan ere, mikroplastikoak kate trofikora eta ozeano hondora igarotzen ari direla pentsarazteko zantzuak topatu dituzte ikerketan.

Aurkitutako plastiko nagusiak polietilenoa eta polipropilenoa dira, eguneroan gehien erabiltzen diren polimeroak, hain justu. Azaldu dutenez, itsas

lasterrek hondakin plastikoak garraiatzen dituzte, eta eguzki-erradioak gero eta zati txikiagoetan zatitzen ditu. Horrek kate trofikora igarotzea eta ekosistemak poluitzea errazten du. Poluzio horren ondorio gehienak, ordea, oraindik ezezagunak direla aitortu dute ikertzaileek.

Bestalde, bost eremu horietan, itsasoratzen diren hondakinen zati bat baino ez dute aurkitu. Hortaz, hurrengo erroka da gainerakoa non dagoen jakitea. ●



Hondakin plastikoen eremu nagusiak. ARG.: CSIC.